

dira hizkuntza batetik bestera, helburu bereizle nahiz adierazkorrekin.

Ik. INTENTSITATEA, AZENTUA ETA INTONAZIOA

### Interjekzioa

*interjección / interjection / interjection*

Interjekzioa hitz aldaezina da, isolatua, berak bakarrik perpaus bat egiten duena eta afektuzko erreakzio bizi bat adierazten duena: →onomatopeiak (*ai, oi, ha*, etab.), izen→sintagmak (*zakurraren buztana, deabruaren bisaia*, etab.), izenak (*ama, Jesus, Jaungoikoa*, etab.), →adberbioak (*gora, utikan*, etab.), etab.

### Intonazioa

→*Sintaxi-talde* edo perpausen *melodia*, edo musika-lerroa, da intonazioa. →Hitza edo →morfema baino luzeago diren segmentuei gainezartzen zaie, hortaz. →Prosodi gertakari hau, beraz, *etena* da, ez *diskretua*; eta, eskuarki, *segmentuaz gaindiko gertakari fonikoekin* batera biltzen da. →Martinet-ek honetara mugatu zuen: «→*tonuak* eta *azentu-kontuak* kenduz gero, *melodi kurbatik* gelditu dena».

Muljačić-ek dioenez, →hizketaren oinarrietako gertakari bat da intonazioa: «→*Enuntziatu agramatikalik* badago; baina *enuntziatu amelodikorik* ez».

Hau dela bide, fisiologiari edo psikologiari datzekion gertaera naturalizat hartu izan da; alegia, ez hizkuntzazkoa, ez *hizkuntzari* berari lotua bezala. Beste batzuk, berriz, →*Fonetika ez-funtzionalaren* barruan jarri dute. Martinet-ek, esate baterako, *bigarren* →*artikulaziotik* at jarzen du, ez delako →*fonematan* aztergarri; eta, horrez gain, gaizki zedarritutako →*funtzioak* dituelako, izaera *adierazko-rrekoak* eskuarki.

Amerikar estrukturalistek *segmentuaz gaindiko* alderdien Fonematan sartzen dute —*tonu mailak*, eta abar—; baina ez zaie beti egokitzen berorien azterketa *funtzionaleri*.

Beste zenbaiten iritziz, bestetik —*generatibistak* batez ere— *intonazioa* →*eternaldiekin* eta *Sintaxiarekin* batera ikertu behar da.

Norbaitek, horrela, →hun mailan, intonazioa →*arartegabeko osagaia* dela esan

du; eta, hortaz, lehendabiziko →*berridazketa-erregelen* bidez sortua dela.

Muljačić-ek, intonazioa hizkuntzei dagokien fenomeno «sui-generis» bat dela azpimarratu ondoren, beste puntu honi eusten dio: →Enuntziatuaren →Fonologiak, psikologiatik at gelditzen diren alderdiak arakatu behar dituela.

Haren ustez, intonazio desberdinak berezten dituen ingurune foniko konplexua «inguru» da. Inguruak —alegia, *azentua* eta *tonua* elkartzen dituzten *prosodi alderdiak*— tresna segmentariak ordezen dituzten neurrian bakarrik dira →bereizleak.

Gaurko linguistikak ez bide du, gaur gaurkoz, intonazioari buruzko teoria orokorrik prestatu.

Euskarari dagokionez, S. →Altube eta Jose Basterretxea ditugu alor horretan bide-urraketan saiatu direnak (ik. Mitxel. F. H. V., 2. ed. 565. or. eta hurr.).

J. R. Zubiaur  
Itz.: Txillardegí

Ik. PROSODIA; TONUA

### Iraganaldia

*pasado / passé / past*

→Esakunea «orain»a baino lehenagoko une batetan kokatzen duen →denbora da iraganaldia. Normalki →orainaldiari eta →geroaldiari aurkajartzen zaie. Baina euskaraz bi elementuren →aurkakotasuna besterik ez dago, →aditz perifrastikoetan →laguntzailean azaltzen dena. Hauek dira bi elementuak: iraganaldia/orainaldia, edo-ta iragana/ez-iragana. Adibidez:

*etorri gara / etorri ginen*  
*etortzen gara / etortzen ginen*  
*etorriko gara / etorriko ginen*  
Denbora: — iragana / + iragana

Iraganaldiaren ezaugarria edo →marka bukaerako -N da, bai aditz perifrastikoetan eta baita sintetikoetan ere. Gainera, hasieran agertzen den *a* →bokalaren ordeze beste bokal itxiago bat azaltzen da, askotan beste -n- bat tartekatzen delarik:

*gara / ginen*  
*nator / nentorren*

### Iragangaitza

*intransitivo / intransitif / intransitive*

→Aditz-→sintagmaren egituran →objektu →zuzenaren →funtziotan legokeen →izen-sin-